

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Astelehenero hitzordua Goikoplazan

Mugimendua indartsu
dago Andoainen / 9

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Postal ederra, elurteak utzi zuena

Aurreikuspenak gainditu
eta gogotik bota zuen / 2-3

Lehen elurtea Urnietan; bigarrena Andoainen

Asteazkenean, goizeko 04:30ak aldera, elurra botatzen hasi eta lau orduz jarraian gogotik egin zuen. Aiurriko kazetariak jarraipen zehatza egin zuten, Andoaingo eta Urnietako kaleetako argazkiak eta bideoak eginez eta sare sozialetan zabalduz



Goizaldeko 06:30ean hasi eta 09:00ak arte elurra gogotik bota zuen, herrigune osoa zurituz. ANDONI URBISTONDO



Elurrak ikuspegi orokorra eraldatu zuen, postal ederrak utziz. AIURRI



Goizeko 08:45ak aldera estuasunak izan ziren N-1 errepidean. AIURRI



Peio Martin urnietarra irudian, elur geruza neurtzen. ANDONI URBISTONDO

**Elurtearen argazkiak eta bideoak
aiurri.eus gunean**



Trafikoan eragozpenak goizeko lehen orduan



Zailtasunak lehen orduan Kaletxiki, Erroitz, Rikardo Arregi eta Arantzibia kaleetan trafikoa eten egin zuten, Andoainen. Hainbat ibilgailu gurutzatu ostean, Urnietako Idiazabal kalean ere trafikoa eten egin zuten 08:30ean.




Herri barruko trafikoa etenda Errepidean goiza zaila izan zen, A15 eta N1 errepideak itxi behar izan zituztelako. Irudian, Idiazabal kalea Hernaniko norabidean. Andoainen, Kaleberrian ilara luzeak sortu ziren.



Herri lanak Andoainen eta Urnietan lana gogotik egin zuten, herri lanetako eta beste zerbitzuetako langileek. Argazkian, David Nielfa Idiazabal kalean, Egape ikastolako sarbidearen parean izotza kentzen.

Gozamena beste askorentzat



Eskiak eta lera Kaleberrian trafikoa mantso-mantso, eta askok oinez egin zuten eguneroko ibilbidea. Labeagak, aldiz, eskiak jantzi eta haurra lera gainean eraman zuen ikastolara.



Ez ohiko irudiak Goizeko lehen orduan eskola saioak bertan behera geratuko ziren zurrumurrua zabaldu zen, Andoainen. Ez zen horrelakorik izan, eta eskolara bidean eta eskolan bertan gozatu ederra hartu zuten ikasle gazteek.



Haurrak jolasean Juanito taberna zenaren atarian, San Miguel elizaren ondoan, haur taldea jolasean zebilen goizeko 09:30ak aldera. Haur eta gazteentzat gozamena izan zen. Urteko, eta aspaldiko, lehen elurtea zen.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Oraingoan bai

Martxoko lehen ilargi beteak –bukaeran beste bat emango da– koska ekarriko zuela itxaropena bazen, neguko beste hiru ilargi beteetan neguak bere aurpegi gordinena erakutsi zuelako. Eta halakoak errepikatzen direnean, gutxienez arreta jarri behar zaio ilargiari. Ekarri du, bada, koska, eta nolakoa. Jonathan Lopezi galdetuta (@urnietameteo), 2009-2010 urteetako neguaz geroztik ez omen da halako elurterik eman Urnietan. Txoko askotan 15-20 zentimetro pilatu zirelako, bostpasei ordutan, herria mendebalde-ekialde zeharkatzen duen errepidean sekulako anabasa sortuz, eta oinez ibiltzeko ere *lau* edukitzea komeni zelako.

Iragarpenek elurra etorriko zela zioten, modu berezian etorriko bazen ere. Euskal Herrian hotza eta elurra ipar haizearekin etortzen dira, normalean, baina asteazkenekoa hegotik etorri zen, Karibeko Itsasoan sortu zen *Emma* borrasak ekarritako fronte beroen eskutik. Bezperan eta aste hasieran, ordea, Siberiatik zuzen-zuzenean Europa menebaldera eta Euskal Herrira iritsi zen *haize demonioak* hotz handia ekarri zuen gure txokora –demonio hitzaren jabetza intelektuala EITBko Andoni Aizpuru eguraldi aurkezlearena da–. Haize hotza beroa baino astunagoa da, nekez mugitzen da, haizerik gabe, eta hegotik etorritako euriak -2 C eta -5 C arteko tenperaturarekin egin zuen talka Euskal Herrian. Ondorioa, elur zaparrada handia!

Goizaldeko 04.36an hasi zuen elurra Urnietan. Iruñean 45 minutu lehenago, alarma egokia ordu txikitari esnatu, kamera eta sakelakoa hartu eta osteratxoa emateko. Suabe aurrena. Espaloiak hurrena, belazeak gero..., eta errepidea 05.30ak aldera. Elurte latza. Urnietan esan ohi dugunez, *lori* edo *malo-malo*.

GOIZALDEKO 04:36TAN HASI ZUEN ELURRA URNIETAN; ERREPIDEA ELURTU ZEN ORDUBETERA

Zentimetroak gora, eta errepidean, elurrarekin batera, izotza, temperatura zero azpikoa zelako. Gutxitan ikusi bezalako ilarak eta iskanbila, Urnietatik Salesiar ikastetxerantz, baita Idiazabal kale osoan ere. Neguko gurgpilekin ere komeriak, autoa kontrolatzeko. Iragarpenek ere ez zuten

halakorik iragarri. Urnietarako 1-4 zentimetro iragartzen zuten.

'The beast from the east' izena eman diote Siberiako haizeari: ekialdetik datorren piztia. Etorri bezala eraman zuen piztia 'Emma'-k. Eskerrak esango dute, askok. Lastima, beste batzuk. Oztopoak oztopo, elurra ederra baita, parekorik gabekoa. Negu honetako azkena izango ote da? Martxoaren 31n da hilabeteko bigarren ilargi beteak. Zaindu egun horietako meteorologia!

POSTONTZIA

M8ko greba feminista Andoainen

ANDOAINGO ASANBLADA FEMINISTA

Sortu berri dugun asanblada feministak martxoaren 8ko greban parte hartzera deitu nahi ditu Andoaingo emakume* guztiak. Euskal Herriko mugimendu feministak bultzatutako *Emakumeok* planto* aldarriarekin bat eginez, zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatu nahi dugu Andoainen ere.

Menpean hartzen gaituen sistema honek sexuaren araberako lan banaketa bultzatzen du (soldata arrakala areagotuz), feminizatutako lanbideak ezkutatu eta gutxietsiz, eta ondorioz, emakumeak prekarrietara bultzatuz. Zaintza lanak ikusezin eta doako bihurtzen dituen

sistema ekonomikoaren menpe bizi gara. Honek guztiak gure burujabetza ekonomikoa oztopatzen du eta bizitza pertsonala, soziala eta politikoa bateratzea eragotzi.

Andoaingo Asanblada Feministak hau guztia aldatzeko aldarria egin nahi du martxoaren 8ko grebaren bitartez, eta andoaindar emakumeak, lesbianak, transak, migratutakoak, gure aniztasun osoan, planto egitera deitu nahi ditu, modu batean edo bestean aldarrikapenetara batzera animatuz.

Grebarekin bat egiteko arrazoiak mila dira, eta baita bertan parte hartzeko moduak ere. Mugimendu feministak deitu bezala, Andoainen ere lau eremuetara zabalduko da greba: lan-eremua, ikasketak,

zaintza eta kontsumoa. Euskal Herrian lan-uzteak 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara egingo dira, eta ikasleen greba ere eramango da aurrera, hezkuntza-sistema androzentrikoa salatuz. Bestalde, ikusezinak diren zaintza-lanak egun horretan ez egitera animatu nahi ditugu emakumeak* (gizonek egin ditzatela!), eta aldi berean, kontsumo greba ere gauzatuko dugu, inguratzen gaituen kontsumo-eredu kapitalista hau hankaz gora jarri asmoz. Arrazoiak edozein dela ere greba egitea ezinezkoa bazaizu, batu zaitez aldarrikapenetara egunean bertan besoko morea jantziz edo amantala balkoian eskegiz, eta hartu parte egunean antolatu ditugun ekintzatan (ikus, Agenda).

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Emakumezko futbolariak bildu ditugu erakusketan"

IXIAR OLANO ANDOINGO UDALEKO KIROL TEKNIKARIA

Xabier Lasa ANDOAIN

"Andoingo emakumeak Euskalduna Futbol Elkartean" izenburuko erakusketa ikusi ahal izango da martxoaren 8tik 11ra, Juanita Alkain plazan. Ixiar Olano Kirol teknikariak hartu du erakusketa antolatzeke ardura.

Zer ikusi ahal izango da Juanita Alkain plazako erakusketan?

Euskalduna futbol taldean emakumeek izan duten parte hartzea islatzen duen argazkien bilduma izango da. Emakume jokalaria, ia 80, ikusgarri bihurtuko ditugu, 2004tik gaur arteko irudien bitartez. Ofizialki, Euskaldunak emakumeen mailan 2004ko irailaren 18an jokatu zuen lehen partida Zumaiaren aurka; Leire Oterminen sartu zuen lehen gola. Zoritxarrez, ezin izan dugu lortu denboraldi hartako irudirik.

Zenbat argazki jarriko dira, eta nortzuk utzi dizkizute?

22 izango dira denera. Argazkiak, batez ere, Javier



Ixiar Olano 2005-2006 denboraldiko taldearen argazkiarekin. AIURRI

Zatarain argazkilariak utzi dizkigu, eta bakar batzuk Beñat Erkiziak eta Aiurri aldizkariak. Bestalde, esan beharra dago erakusketa Andoingo Udaleko Berdintasun Sailak eta

Jarduera Fisiko eta Kirola Sailak elkarlanean antolatu badugu ere, Euskaldunaren, jokalaria ohien eta Zatarainen laguntza jaso dugula. **Nori aholkatuko zenioke erakusketan ikustea?**

Herrian ezagunak ditugun bizilagunak azalduko dira izen abizenekin, eta iruditzen zait futbolzaleez gain, geure herriko historia hurbilaren zati batekin interesa duen edonorentzat izan daitekeela interesgarria. Azken batean, ehun urte betetzera doan klub baten historian, mugarriztat jo behar da emakumeak ere parte aktibo bilakatu izana.

Andoingo emakumeentzat, beste zenbait herriekin alderatuta, ez da futbola hain erakargarri bilakatu. Zergatik dela uste duzu?

Hala da, baina ez dakigu zehazki zergatik izan litekeen. Kontrako faktoreen artean, bata orokorra izan liteke: egun, oraindik, emakume gazteei mutilei baino gehiago kostatzen zaie kirola egitea. Andoainera etorrita, Euskaldunako aurreko zuzendaritzak ahaleginak egin zituen emakumeen artean futbola sustatzeko, eta baita egungoak ere. Lanean jarraitu beharko da, formula egokia topatu arte.

Futbol partida batekin amaiera emango diozue erakusketari.

Jokalaria ohien eta egungoen arteko partida izango da, Ubitarten, 12:00etatik aurrera. Eta hurbiltzen direnen artean zozketa egingo da: Basteroko sarrerak, Realeko jokalariek sinatutako kamiseta,...

HAU ERE BADUGU!

Pentsiodunekin bat egiteko deia



Julen Lorezok

"Andoindarras y punto" FB orrialdean Aiurrik argitaratutako argazkia partekatu eta askotxo izan dira pentsiodunekin elkartasuna agertu duten herrikideak. Denon ardura eta erantzukizuna dela erantsi dute, beste erabiltzaile batzuk. Eta, astelehenero, Goikoplazara hurbiltzeko gonbitea luzatu dute. Teo Nogalesek, esaterako, jende gehiago hurbiltzeko arrazoiak badaudela zioen: "Andoainen milatik gora gara pentsioa jasotzen dugunak. Gutxi ginen, lehengoan. Denok batera indar gehiago izango dugu".

Piano jaialdia internet sarean



Aurtengo edizioan Twitter eta Facebook sare sozialetan oso aktibo ibili da antolaketa taldea, informazio zehatza eskainiz eta hainbat argazki partekatuz. Larunbat iluntzean sorpresa iragarri zuten, eta hortxe lortu zuten arreta gehien piztea. Izan ere, igandean ikusi ahal izan zenez, sorpresa itzela izan zen. Azken orduan OT txapelketako Amaia irabazlearen bideo bidezko mezua jaso eta horixe eskaini zuten Basteroko amaiera ekitaldian. Bideoa, igande gauaz gerostik, sare sozialetan zabaldu zuten eta zabalpen handia izan du. Bideo gehiago ikusgai daude Aiurriko eta Andoingo Udaleko youtube kanaletan.

BOLO-BOLO

Antena 3

Astearte eguerdian Kale Nagusian Antena 3 TV kateko kazetaria eta kamera zebiltzan, harrera ekitaldiei buruz oinezkoie iritzia eskatuz. Egunak aurrera joan ahala, gaiak oraindik ere mediatiko izaten jarraitzen du. Biharamunean, elurtearen erdian, Antena 3 TV kateko kazetari bat Aiurriko kazetariarekin harremanetan jarri zen N1 errepidearen gainetik Bazkardo parean egindako bideoa emititzeko baimena eskatuz. Tokian tokiko informazioa garrantzia handiagoa hartzen ari da mundu globalizatuan.

GORA ETA BEHERA



Deiadar elkarte eta laguntzaile taldea

Urtez urte, Euskal Herri osoko ehunka piano jotzaileentzat erronka modukoa izaten da Andoingo Piano Jaialdian parte hartzea. Taula gainera igotzea, urduritasunak saihestea eta jarritako helburuak betetzea egon ohi dira musikari horien buruan. Erronka horretan parte hartzeko bideratzaileak Deiadar taldea eta haien laguntzaileak dira. Lan handia eta ona egin dute.



Antzerki taldea Urretxuko lehiaketan

Otsailaren 16an "La cita" antzezlan eskaini zuen Urretxuko Labeaga Areotan, antzez-motz antezlan laburren lehiaketan. Ostiral honetan iraupen laburreko antezlanen finalera sailkatu ote diren jakingo dute

Erredazkioa URNIETA

Belen Merino, Esther Modia, Ixidro Salinas, Juankar Erasun, Julio Nogales eta Lupe Herrero aktore lanetan aritu dira, Mikel Agirregomezkortaren zuzendaritzapean. Lehiaketak iraupen laburreko formatua behar dela izan zehazten du. Merituen artean epaimahaiak honakoak kontutan hartuko ditu: publikoarengana iristea, eta antezlan zehatza eta adierazkorra izatea. Topaketa publikoaren aurrean esperientzia lortzeko eta beste antzerki talde batzuk egiten duten lana ezagutzeko aukera ona da. Finalerako txartela ostiralean banatuko dute.



Urrietako antzerki tailerra, artxiboko irudian. Ostiral honetan jakingo dute ea "La cita" antezlanarekin finalera sailkatu diren ala ez. AIURRI

Musika saioa kalean

Egokitzapen lanak egin dituzte musika eskolan, eta baita sarbidea aldatu ere. Ikasleek astelehen arratsaldean ekitaldixoa egin zuten Bosko Anitz txaranga, Txanbolin eta ikasle ohien laguntzarekin. Leteren *Kontrapas* eta *Habanera* eskaini zituzten. Egun, 150 ikasle ditu Lourdes Iriondo Udal musika eskolak. Aiurriko webean, bideoak ikusgai.



AIURRI

Bidaien diaporamak

Lehiaketara aurkeztutakoetatik hauexek aukeratu dituzte: Maddalen Kortajarena (Etiopia), Ane Arozena (Erasmus esperientzia Mexikon), Alain Moto (Riding South Asia), Ane Arregi (Made in Taiwn), Andoni Urbistondo (Bistare-Bistare). Aurkezpenak martxoaren 19-23ko astean izango dira, astelehenetik ostiralera, Saroben. Saio guztiak 18:30ean hasita.



URNIETAKO UDALA



NIRE USTEZ

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Zebrak

Mundua zuri beltzean ulertzea ezinezkoa dela diote batzuek, substantziarik ez duten bi kolore horien artean badaudela kolore kromatikoak, hain kontrajarriak diren bi iritzi horiek lausotzen dituztenak, alde batean ala bestean ez kokatzen laguntzen dizutenak. Baina badira zebren azalaren antzera marra zuri-beltzen artean kolorerik ez duten egoerak. Horregatik, badira hor tartean nora jo ez dakitenak, funanbulisten antzera bi aldeak banatzen dituen marraren gainean oreka mantentzen saiatzen direnak, euren jarrerekin alde batera edo bestera joatea baino bide erdian sokaren balantzan egotea nahiago dutenak, baina haizeak beti gogor jotzen du. Bidegabekeria baten aurrean jarrera neutrala erakusten bada zapaltzailearen alde zaudela zioen behin Desmond Tutuk, Apartheid-en aurkako ekintzaileak. Hau entzun eta jarraian jende askoren ahotan dagoen esaldi bat datorkit burura: "Ni ez naiz ez matxista ez feminista, ni berdintasunaren alde nago". Ignorantzia putz egiten dabil, eta ez espresuki noranzko egokian.



PRESENTACION DE MARIA

Haurren kasketak aztergai

Presentacion de Maria ikastetxeko Zure Alboan guraso eskolak Rafael Cristobal psikiatra gonbidatu zuen aurreko astean, haurren kasketa eta kapritxoei buruz jarduteko. Gurasoekin batera egindako hitzaldi-solasaldian, kasketak gutxitzeko eman beharreko pausoak azaldu zituzten. Gurasoek zer egin eta nola jokatu behar duten ikasi zuten.

Delinkuentzia talde berriak

Salesiar ikastetxean Ertzaintzak "Gazteen arteko delinkuentzia talde berriak" izeneko hitzaldia eskaini du aste honetan. "Heziketa ordua" izeneko saioetan, maila ezberdinetako ikasleak aste guztian zehar elkarbitza eta ikasleen balore egokiak sustatzen aritu dira.

Ertzainek gaur egungo gizarteari buruzko deskribapena egin zuten gaizkilearen profila deskribatuz, izaera hori nondik datorren azalduz, gaztetan delinkuentzian murgiltzeak zein ondorio izan ditzaketen zehaztuz, adin txikikoen epaiketa sistema nolako den esplikatuz...

Hitzaldiaren helburua gazteek kalean aurki ditzaketen arriskuen berri ematea da. Aldi berean, Ertzaintzak lansaio horiekin gazteen artean erantzukizuna eta errespetua sustatzea helburu du: "Batzuetan gazteek beraien ekintzen ondorioak ez dituzte aurreikusten, eta jakin behar dute hainbat jokabidek ondorio larriak dituela".



Valeria Viguera, ezkerrean hasita lehena. Argazkian ikusten denez, jendetsua izan zen asteleheneko bilkura. AIURRI

Protestarik ez Urnietan

Andoainen astez aste mugimendua haziz doan heinean, Urnietan oso bestelakoa da egoera. Astelehen eguerdian, esaterako, 12:00etan ez zen bilkurarik egin Urnietako San Juan plazan.

Pentsio duin batekin bizi nahi dugula aldarrikatzen ari gara. Mezua goiko esferatan soldata potoloarekin bizi diren politikoei luzatu nahi diegu. Horiek eduki asko dakite euren etorkizun pertsonala ziurtatzen. Bigarren soldata galanta jasotzen dute aurretik gobernuan karguak eduki dituztelako; eta ez hori bakarrik, Endesa eta antzeko enpresa handietan administrazio kontseiluetan sartzeko modua aurkitzen dute. Klase politiko horri ahaztu egin zaio iraganean kaleko jantziekin boto eske ibili zela, herritar xumeak zirela aldarrikatuz...

Beraz, Rajoyren gobernuak 2018rako agindu duen %0.25eko igoera ez duzue inolaz ere onartzen. Suminduta agertu zarete.

Lotsagarria izan da! Euro baten igoera esan nahi du, kasu gehienetan. Gobernuari gehiago kosta zaio gutuna bidaltzea, euroaren igoera bera baino. Pentsiodun askok gutuna sutara bota dute, edota gobernuari bueltan itzuli. Jendea suminduta kalera atera da.

Pentsiodunak zarete ia denak gaur bilkuran. Gizarte osoari dagokion arazoa dela adierazi duzue, oster. Iritsi al da zuen mezua?

Oraingoz, ez. Goiz ala berandu, belaunaldi gazteei ere eragingo die. Eroso eta ezeren faltarik izan gabe bizitzera ohitu ditugu. Ez dezatela pentsa hori betiko izango denik. Francoren diktadura bizi izan genuen; egoera gogorra zen, baina borroka latza eginez hainbat eskubide lortu ziren. Bada, eskubide horietako batzuk galdu egin ditugu azken urteotan. Eta beste batzuk galzorian daude. Gainera, greba eskubidea murrizteko Mozal legea asmatu dute ere. Belaunaldi guztiak ez bagara biltzen kausa honen alde, denon kalterako izango da.

Xabier Lasa ANDOAIN

Valeria Viguera Andoaingo pentsiodunen elkarretaratzeak sustatu dituen mugimenduko ki-deetakoa da.

Aste batzuk badaramatzazu Andoaingo elkarretaratzeetan parte hartzen...

Bai. Nire alderdiaren bitartez izan nuen protestaren berri, orain hiru bat aste edo. Hiruzpalau pertsona bildu ginen udalletxearen aurrean, pankatari ozta-ozta eusteko moduan. Gure artean genion: "Hau zabaldu beharra dago. Ez da posible guztioi eragiten digun arazoa izanda, lau katu biltzea". Era horretan, sare sozialetan mezua zabaltzen hasi ginen, eta batez ere, ahoz ahoko kanpainari ekin genion.

Lau zineten lehenbiziko txandan. Aurreko astean hogeita hamar, astelehen honetan ia 200 lagun...

Haziz doan mugimendua da. Bapatekotasunetik dauka asko, eta ahoz aho zabaltzen ari da. Eguraldi kaskarra eduki dugu aurreko asteetan eta jendea ez da animatu, baina ikusiko duzue, hurrengo asteetan gehiago izango gara! Asteleheneroko mobi-

"Guztioi eragiten digun arazoa da"

Euskadin eta espainiar estatu osoan zehar koordinadora bat lanean ari da, pentsioen duintasuna aldarrikatzeko asmoz. Astez aste hazten ari den mugimendua da. Bilbon, esaterako, bilkura jendetsuak irudi ikusgarriak utzi ditu. Andoainen ere borrokan ari dira

lizazio honek ez dauka iraungoite datarik. Pentsio duinak lortu arte, ez da etenik izango. **Kanpaina egiten zabilta. Zer nolako egoerak topatu dituzu?** Izugarria da zenbaitek bizi duten prekarietatea. Badago jendea

"BADAGO JENDEA HILABETEA 300 EDO 400 EUROREKIN PASA BEHAR DUENA. IZUGARRIA DA HORI"

hilabetea 300 edo 400 euroekin pasa behar duena. Ezinezkoa zaio etxean, esaterako, berogailua piztea. Eta, ondorioz, manta bat gainean duela bizi beharra dauka. Ez dago eskubiderik!

Errealitate horren aurrean, batzuek batzuk animatzen ari dira kalera atera eta protesta egitera. Baina beste batzuk, oso jarrera pasiboa daukate; "alferrik da kalera ateratzea, nahi dutena egingo dute" esaten dizute. Nik erantzuten diet, alferrikako kontua, benetan, etxean gaizki esa-

ka jardutea dela, orduan bai inork ez digula kasu izpirik egingo!

Zer eskatzen da elkarretaratzeetan? Gobernuak entzun egin behar gaitu: Jende asko bizi da oso egoera prekarioan.

"GOBERNUAK ENTZUN EGIN BEHAR GAITU, JENDE ASKO BIZI DA OSO EGOERA PREKARIOAN"



Eguzki giroko asteburua, aurtengo piano jaialdikoa

Eguraldia lagun, Goikoplaza aldean eta Zumea plaza aldean dozenaka bisitari ibili zen. Izan ere, joan zen asteburuan zazpirehun musikari hurbildu ziren Andoainera. Piano Jaialdiak arrakastaren bidetik darrai

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat goizetik aparkalekuak beteta zeuden Andoainen, eta bisitari gehienek Bastero jomugan zuten. Kulturgunea piano joleen bilgune izan da egunotan. Eguzkia izan da aurtengo jaialdiko gonbidatu berezia, eta horri esker bisitari asko herrian barrena ibili ziren. Gonbidatuak aipatzen hasita, aurtengo amaiera ekitaldia sonatua izan da. Finalisten emanaldia eta gero, ezustean, TVEko Operacion Triunfo saioko Amaia Romero irabazleak bideoa helarazi zien antolatzaileei. Iruñarrak hiru urtez jarraian parte hartu zuen, eta animozko hitzak bidali zituen. Bat baino gehiago aho bete hortz geratu zen bideoarekin. Detalle



Piano jaialdian aritu ziren urrietarrak, domina eta diploma eskuetan. AIURRI

polita, kantariarena. Baita Esti Mujika kultur zinegotzia eta Ana Carrere alkatearena ere.

Musika eta hitza uztartuz, amaiera polita eman zioten aurtengo jaialdiari.



Auditorioa eta ekitaldi aretoa jendez bete dira asteburu osoan zehar. AIURRI



Finalistak igande arratsaldean eskainitako saioren ondoren, diploma eta domina bana eskuetan. AIURRI




Bastero kanpoaldean jendetza bildu zen asteburu osoan, eta era berean, baita herrigune osoan ere. AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak kalejira egin zuen igande eguerdian, Mikel Emezabalen zuzendaritzapean. AIURRI



Esti Mujikak eta Ana Carrerek jaialdiari amaiera dotorea eman zioten, hitza eta musika uztartuz. AIURRI




Eskerrik asko

ESTI MUJIK A ANDOINGO UDALEKO KULTURA ZINEGOTZIA

Piano jaialdiaren 13.edizioa bizitu berri dugu Andoainen, asteburu honetan. Deiarar elkartearen antolakuntza paregabeak Euskal Herri osoko piano joleak, haur zein gazte, Basterora gerturatzen dizkigute. 733 partaideek, Basteroko taula gainera igo aurretik, ikasketa prozesu osoa igarotzen dute: Irakasleen gidaritzapean partitura irakurtzen hastetik, etxean gurasoen bultzadaz behin eta berriz ensaiatu eta, bakoitzaren txanda iristen denean, jendearen aurrean jotzera iritsi arte. Instrumentu bat jotzea ekintza magikoa da, denok ere kitarra, bibolina edota kasu honetan pianoa jotzean sentitzen dugun magia. Zerbait berezia sumatzen da haien begietan, baita eskuetan ere. Eta horrek guztiak egiten du entzuten dugun musika magikoa izatea. Basteroko ateetatik atera da magia hori, eta Bandaren laguntzaz, Andoaingo kaleetan zehar lau haizetara zabaldu da. Mila esker guztiei, Andoainen sorturiko musikarekin, ilusioa sortzen jarraitzeagatik!!

Laguntzaile taldearen garrantzia



OIHANE MENDIZABAL
ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

Hamaika lan egin behar dute bi egunetan

Basteroko sarreraren denetik egin behar izaten dugu. Oholtzara doazen piano jotzaileak bideratu egiten ditugu, eta aldi berean lasaitasun pittin bat transmititzen saiatu. Gainerakoan, ikusleei informazioa helarazten diogu. Egin kontu, ehunka pertsona dabiltza sartu eta atera asteburu osoan zehar.

Orain lau bat urte sartu nintzen antolakuntzan. Ni ere piano jotzailea izan naiz, nahiz eta orain pixka bat baztertuta eduki. Jaialdiaren aurreneko edizioetan parte hartu nuen, eta oso oroitzapen politak dauzkat. Jaialdia nahiko ondo ezagutzea egokitu izan zait, beraz, barrutik nahiz kanpotik. Antolakuntzan gabiltzanok, denok ere lotura estua dugu, eta familia modukoa osatzen dugu. Nik uste familia-sentimendu horri esker ateratzen dela hain ondo Andoaingo Piano Jaialdia.



ENEKO BROSA
PIANO JOTZAILEA

Parte hartu eta geroko balorazioa

Parisian Waltz (Marta Mier) abestia jo dut, bakarlariren sailean. Ez naiz atera oso gustura saiotik. Etxean askotan jo izan dut pieza hori eta beti ondo atera zaidan arren, urduritasunak ez dit gaurkoan lagundu. Iruditzen zait entzuleak ez direla ohartu egindako bi hutsekin; txaloak-eta eskaini dizkirate behintzat. Baina ama ederki ohartu da, bai. Etxean askotan entzun behar izan baitu doinu hori... Jendaurrean bakarrik jotzeak errespetu handia eragiten dizu. Eskubaloian ere astebururo egokitzen zait kantzara ateratzea jokatzera; badakizu jendea begira daukazula, baina ez da gauza berbera.

Ez da aurreneko aldia jaialdian jotzea egokitzen zaidala. Laugarrena da, eta beti bakarka aritu naiz. Oso polita da, poza ematen du kanpotik etorritako hainbeste piano jotzaile ikusteak, hainbeste ikuslerekin.

Andoni Urbistondo URNIETA

Errekalde kaleko bulegoetan antolatzen du bere jarduna Joseba Lizasok (Urnieta, 52 urte). Bigarren urtea du UKE Urnieta Kirol Elkarteko lehendakari jardunean. Semeak dituen aita askok bezala hasi zen, haurrak kirola egitera eramaten, eta aginte-makila berea eta alboan duen lan taldearena da gaur. Zerbaki deigarriak sortzen ditu kirol elkarteak: 400 herritar, hainbat guraso, 161.000 euroko aurrekontua, eta agente aktiboa kiroldegi berriaren eraikuntzan.

Aurkez ezazu zure burua, mesedez.

52 urte ditut, urnietarra naiz, eta lehendakari bezala 2016an hasi nintzen. Noiz hasi nintzen badakit, baina noiz bukatuko den ez. Noiz utzi nahi nukeen ere badakit: lehenbailehen (barrez), baina presarik gabe.

Nekatuta al zaude?

Ez, baina gazteek ere lekukoa hartzea komeni, erraza ez bada ere. Honek denbora eskatzen du, musu truk egin beharreko lana da. Agerikoa da datorren belaunaldiak inplikatzeko-eta komeriak dituela.

Zergatik hartu zenuen kargua?

6 edo 7 urte izango dira, UKEn sartu ginela, Ismael Hernandez aurreko lehendakaria kargua uztekoan zegoela, eta Mikel Yurramendi lanean hastekotan. Josemi Sanchez, Maite Otaño, Jone Gonzalez eta ni neu hasi ginen. Duela bi urte Yurramendik utzi egin zuen, asanblada bat egin zen, eta orduan juntan geundenen artean bozka egin, eta ni hautatu ninduten.

Nolatan animatu zinen?

Klubak gazteek kirola egiteko ezinbesteko erakusleihoa osatzen du. Klubik gabe, ezer gutxi legoke, eta hori bultzatu edo sustatze aldera eman nuen baiezkoa. Bi seme ditut, 20 eta 12 urtekoak, eta orain zaharrena denarekin hasi nintzen klubean, gaztetxo zenean. Zaharrenak utzi du futbola, baina gazteena ari da. Gu baino lehenago beste batzuk aritu izan ziren, eta norbaitek lekukoa hartu behar zuen.

Ze lan egiten duzu?

Astearte eta ostegunetan etortzen naiz, arratsaldez, lan jardunaldia bukatuta, ordu eta erdi edo bi ordu. Asteburuetan-eta ez dut gauza handirik egiten. Lehen futbol eskolan-eta laguntzen nuen, gero beraiek euren kasa moldatzen hasi ziren. Administrazio lanak-eta beste kide batek eta



Erantzukizunez hartu du kargua: "Gu baino lehenago beste batzuk aritu izan ziren, eta norbaitek lekukoa hartu behar zuen". AIURRI

"400 jokalaridaude UKEn, zaindu beharreko altxorra da hori"

Kirolean ez ezik, gizarte mailan ere funtzio garrantzitsua betetzen du Urnieta Kirol Elkartek. Jokalari eta prestatzaileen atzean talde eragilea lanean ari da, Lizaso buru dela. Erantzukizun eta konpromiso handiko lana, ez bairik gabe

biok egiten ditugu. Nik, semeak ingelesa daukan bitartean. Taldeen antolaketa, babesleak, asteburuko garraioa, diru laguntzak bideratu... beti bada zerbaite. Hiru sekzioak nahiko modu autonomoan antolatzen dira, batez ere

"KLUBAK GAZTEEK KIROLA EGITEKO EZINBESTEKO ERAKUSLEIHOA OSATZEN DU"

eskubaloia, eta horri esker, bilerak eta erosoagoak dira. Gero Batzarrak-eta sekzio guztiek batera egiten ditugu.

Futbola, eskubaloia, pilota... Hautaketa gazteak berak egiten al du?

Bai, erabat. Benjamin kategorian, eskola kirolan, halako multikirola egiten dute. Alebinetan eskubaloia eta futbola egiten dute, eta infantiletan, kirol horietako bat aukeratu behar dute elkarteko kide izaten segitzeko. Infantiletan bi kirol jarduera jorratzea ez da erraza, entrena-

mentu egunengatik, eta asteburuetan bi partida izango litzuketelako. Gehitxo litzateke, gurasoentzat.

400 gazte inguru, beraz, UKEn. Kopuru polita da. Urnieta biztanleri osoaren %7 inguru.

"HAN EDO HEMEN IKASITA ERE, DENAK URNIETARRAK SENTITZEN DIRA. POZGARRIA DA"

Etorkizunean mantendu beharreko altxorra da hori. Gazteetatik aparte ere jende asko mugitzen du: entrenatzaileak, laguntzaileak eta nola ez, gurasoak. **Ez da erraza izango multzo handi hori gobernatzea...**

Ez, ez... Nabarmendu nahi nuke talde gehienetako entrenatzaileak ere urnietarrak direla, ia %100. Futbolearen eta pilotaren denak, eskubaloian denak senior mailan izan ezik. Alor horretan asko ahalegintzen gara, herriko parte hartzea erabatekoa izateko, eta jendea kanpotik ez ekartzeko. Gazteei entrenatzeko grina sartzeko, formakuntza diruz lagunduz, jendea trebatuz. Federaziotik-eta gero eta gehiago eskatzen digute jendea formatzeko. Pilotan ere saiakeran bat egon zen, formakuntza arloan, baina ikastaroak Abadiñon ziren, Bizkaian, eta larunbatetan. Erraza ez, haraino joatea.

Funtzio sozial handia egiten duzue.

Bai noski. 400 gazterik kirola egiteko aukera emateko antolakuntza lana egiteak sentsazio hori ematen digu.

Herritarrek ze pertzepzio dute UKEn inguruan? Nola ikusten dute kirol elkartea? Zein iritzi jasotzen duzue?

Denetarik egongo da, baina ez dakit ze pertzepzio daukan jendeak. Ni ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. Batzuetan asmatuko dut, eta beste batzuetan ez. Ez dut sumatzen gaizki egiten ari garenik, bestela konturatuko ginatkeela uste dut. Askok esaten dutena zera da, gustura daudela euren seme-alabak Urnietan kirola egiteko aukera dutelako, eta hori ez da gutxi, nire ustez. Iritzi gehiago jatsotzea gustatuko litzaidake, bai onak baina baita txarrak ere, hobetzen ahalegintzeko.

Zer gustatzen zaizu gehien, zure jardunaz?

Gazteak gustura egotea, eta alor guztien arteko harremana ona izatea. Garai batean, Urnietan, oso agerikoa zen ikastola eta nazionalen arteko muga hori, eskubaloia eta futbolaren arteko bezalaxe. Orain ez dago banaketa hori, Eskola Kirolari esker nahasketa eman delako, beraien arteko harremana sortu delako, eta UKEra iristean ere mantentzen egiten delako. Denak urnietarrak sentitzen dira, han edo hemen ikasita ere. Pozgarria da halakoak ikustea. Beste herrietatik etorritakoak ere lege onez



Kiroldegi berria eraikitzen dutenean, bertan egon nahi dute, "eta printzipioz hara joatekotan gara". AIURRI

hartzen dira, eta gustura gaude, batez ere haiei esker talde bat osatzeko aukera dugunean.

Eta zer atsegin duzu gutxien?

Jendaurrean hitz egitea. Egin behar dudalako egiten dut, baina aukera emango balidate, ez nuke egingo.

Aipatu dituzu ondoko herriak. Nolako da harremana beraiekin?

Denetarik dago. Txukuna, esango nuke. Futbolean ematen dira, nagusiki, herri batetik bestera joateko mugimenduak, eskubaloian ez hainbeste. Orain, federazioak eta Aldundiak esku hartu dute, eta alebin eta benjamin mailatan, umeek derrigor euren herrietan jokatu behar dutela erabaki du. Seguruenik, Infantiletara ere luzatuko da arau hori, hurrengo urtean. Urnietako kasuan, mugimendu horrek min egiten du, ekipoak egiteko jende kopurua justua izaten delako. Gure lehentasuna

"UDALAK EMATEN DUEN LAGUNTZAZ GAIN, BESTE 113.000 EURO GEHIAGO LORTU BEHAR DITUGU"

maila guztietan taldeak sortzea da. Beste lehentasuna nesken taldeak mutil taldeen neurrian sortzea da, parekidetasunera bidean.

Zein da egoera, UKEn, mutil eta neska taldeen artean?

Eskubaloian bederatzita talde daude, bost neskenak, eta lau mutilenak. Futbolean, mutilenak sei, eta neskenak 3. Guztira gizonetako 10 talde eta nesken 8 daude. Pilotan denak mutilak dira.

Nolako harremana duzue Udalarekin?

Ona. Laguntzeko borondatea izaten dute eta konforme gaude. Jakina, guk beti gehixeago eskatzen dugu, eta beraiek gutxi xeago eman nahi, baina betiko borroka da hori. Diru laguntza jasotzen dugu, lokalak ere uzten dizkigu, eta ondo moldatzen gara. Udalak herriko seme-alabak herriko klubean kirola egitea nahi du, eta hori bermatzeko egiten dugu lana.

Beste diru iturri batzuk behar dituzue, edo Udalaren diru laguntzarekin moldatzen zarete?

Ez, ez gara iristen. Beste diru iturriak behar ditugu, baita lortu ere: Errifak, babesleak, hain-

bat erakundeen diru laguntzak (Aldundia, federazioak, Reala...). Halakoak egingo ez bagenu kirolarien fitxak garestiagoak lirake. Entrenatzaileei ere diru laguntza ematen zaio, detalle bat, euren prestutasuna eskertzeko. Guztira 161.000 euroko aurrekontua dugu. Kalkuluak errazak dira. Udalak ematen duenaz aparte, 113.000 bat euro lortu behar ditugu, ekimen ezberdinen bitartez.

Zenbat ordaintzen da fitxa bakoitzeko?

160 euro, infantiletatik seniorretara. Denek berdina ordaintzen dute. Arropa ematen zaie elkartean hasten diren lehen urtean, 30 euroren truke, eta arropa hori kirolariarentzat izaten da gero. Arropak, noski, 30 euro baino gehiago balio du, baina defizit hori fitxaren salneurriarekin orekatzen da, urteak aurrera joan ahala. Fitxa bakoitzeko

"UDALAK DIRUZ LAGUNTZEN GAITU, LOKALAK ERE UZTEN DIZKIGU, ETA ONDO MOLDATZEN GARA"

eskatzen diren 160 euro horiekin federatzea ordaintzen da. Gero epaileak ordaindu behar dira, entrenatzaileak, autobusak, aseguruak, mediku azterketak... 160 euro ordaintzen da fitxa, baina kirolari bakoitzean diru gehiago inbertitzen da. Eta horretara bideratzen da Udaletxeak ematen duen diru laguntza. Udaletxeak diru laguntzarik gabe fitxa bakoitzaren kostua askoz handiagoa litzateke, eta horrek zailtasun gehiago eragingo litzuke gurasoen poltsikoetan, noski. Inguruko herriei alderatuta, Urnietako fitxa merkeenetakoa da. Hainbat herrietan, gainera, herriko kirol elkartean aritzeko kiroldegiko bazkide izatera derrigortzen dute. Urnietan, oraindik, ez.

Kiroldegiaren eraldakuntzan parte hartu duzue?

Bai. Planoak eta egin zituztenean, beste elkarrekin batera. Gure aportazioak egin genituen, eta horiek entzunda, aldaketa batzuk egin zituzten. Orain berrantolatzen ari dira, aurrekontua eta beste garestitu egin delako apur bat.

Zein ekarpen egin zituen UKEk?

Aldagelen kontuan, batez ere. Beraien hasierako asmoa aldagelak beheko solairuan eraikitzea zen. Handiagoak egitea eskatu genuen, eta handitzeaz bat, erosoago izateko bidean, aldagelak eskubaloiko pista eta futbol zelai ondoan jartzea, beti ere jende mugimendua txikitzeko. Biltegien kontuan ere, eskubaloikoa handia zen, baina futbolekoa ez hainbeste, eta handixeagoa eskatu genuen. Bulegoari dagokionez, kiroldegian bertan egon nahi dugu, eta printzipioz hara joatekotan gara, sarrera nagusiaren ondoan. Bere garaian taberna ondoko bulegoa eta bilera gela eskatu genituen, baina ez zuten egoki ikusi. Orain ere Kiroldegira joan nahi dugu.

Epeei buruz zerbait ba al dakizue?

Lanak urrian hastekoak dira, aurreikuspena iaz hastea bazen ere. Proiektu erraldoia da, eta gauza horiek mantso joaten dira.

Eta bukatu?

Ez dakit, batek daki.

Ze erronka dituzu etorkizunerako?

Gaur-gaurkoz, aurrera segitzea, txukun. Etxean kontrakoa esaten ez diguten bitartean, edo beste ordezkoren bat azaldu arte...

Klub bakarra, hiru atal nagusi

Klubak hiru sekzio ditu: pilota, eskubaloia eta futbola. Egingo al zenuke UKEn egungo erradiografia?

Pilotan 18 kirolari daude. Pilota eskola ere badago, eta 30 bat ume dabilta. Datu ona da, baina gero, beste kirolek ia jokalaririk denak irensten dituzte, besteak beste umeek lagunek egiten duten hautua jarraitzeko joera dutelako. Zentzu horretan, beste kirolek indar handia dute. Pilotan bi edo lau behar dira jokatzeko, banaka ere posible da, baina futbolean eta eskubaloian taldeak du indarra. Taldea nora, gaztea hara. Bizi legea! Eskubaloian 122 pertsona daude, eta eskubaloian 8. Futbolean 176 fitxa ditugu, eta beste 75 ume futbol eskolan. Bai eskubaloian, bai futbolean, 2008 eta 2009 urteetan Urnietan jaiotza tasa murriztu egin zen, beste urte batzuetan ohikoa baino handiagoa izan den bezala. Horrek kategoria batzuetan bi talde egotea ekarri du, eta beste batzuetan, talderik osatu ezinik, edo larri ibiltzea. Arduratzen gaituen egoera da, zeren eta 30 gazte baldin badituzu, talde bat egiteko jendea sobera izaten da, baina 15 laguneko bi talde egiteko larri. Bi talde sortzea hobe da beti, bakarra ez ateratzea baino.

Gustatuko litzaidake futboletik kanpo geratzen direnetaatik, eskubaloia aukeratzeko joera handiagoa egotea, baina ez da beti gertatzen. Futbol talde bakarrean sei lagun sartu ezinik geratzen badira, gehiegi direlako, eta horiek eskubaloira pasako balira, ez ginatke arduratuko, baina ez da egoera hori ematen, zoritxarrez. Andoaindik, Hernanitik eta jendea etortzen da, taldeak osatzeko, eta gaitzerdi, ze talderik gabe, gazte batzuk kirola egin ezinik geratuko lirake.



Xauxar tabernan eta Ikasmin akademian izena eman daiteke. ROGER MOSS

Eski irteera, Zanpatuz taldearen eskutik

MENDIZALETASUNA Irteera martxoaren 10ean izango da, eta igande honetan bukatuko da izena emateko epea. Goizeko 06:00tan irtengo dira, eta egunean bertan itzuli. Bestalde, apirilean Mendi Film jaialdiko hainbat lan ikusteko aukera izango da

Andoni Urbistondo URNIETA Zanpatuz mendi taldeak urteroko eski irteera antolatu du. Martxoaren 10ean izango da aurtengoa, larunbatarekin, eta egun bakarrekoa. Luz Ardiden aukeratu du Xabier Irastorza antolatzaileak, pasa den urtean bezala, Luz Saint-Sauveur herrian materiala alokatzeko aukera

oparoa eta azkarra baita. Eski alpinoa, snow-a eta erraketak egiteko materiala alokatzeko aukera izanen da, hala nahi izanez gero.

Izena emateko azken eguna, igande honetan
Izen emateko epea martxoaren 4an bukatuko da, igande honetan,

eta Xauxar tabernan eta Ikasmin akademian egin daiteke. Izena ematerakoan, ordaintzeaz gain zein aukera egiten den zehaztu beharko da derrigor, antolatzailerak alokatu behar den material zerrenda eskaera garaiz egiteko.

Autobusaren ordainsaria 10 eurokoa izango da, heldu eta haurrentzat. Forfaita eta auto-

buseko joan etorria ere prezio berean denentzat, 45 euro. Materiala behar duenak, 60 euro gehiago ordaindu beharko ditu eski alpinoa edo snow egiteko hautua egiten badu (55 euro haurrak), eta erraketakin buelta eman nahi duenak, 25 euro. Irteera goizeko 6retan izango da Matxo taberna ondoko autobus geltokitik, eta itzulera iluntzeko 20:00ak alderako espero da. Mendi elkartetik ordutegia errespetatzeko eskaera egin nahi zaie irteerara joaten direnei, iragarritako orduan Urnietara bueltatu ahal izateko

Mendi Film, datorren apirilaren 13an Urnietan

MendiFilm Mendi pelikulen festibalak Urnietan egingen du geltokia bigarren urtez jarraian. Iaz udazkenean izan zen, baina aurten udaberri betean izanen da, apirilaren 13an, hain zuzen ere (ostirala). Urnietako Udalak antolatzen du ekimena, eta bere nahia zen mendiko pelikula horiek ikusteko aukera hilabete batzuk aurreratzea, udazkena iristerako Urnieta eta inguruko herrietako jende askok saritutako filmak ikusita dituelako,

dagoeneko. Apirilera aurrerata, Urnietan baino lehenago, eta Gipuzkoan, Eibarren, Tolosan, Eskoriatzan eta Hondarribian bakarrik ikusi ahalko dira 2017ko ekitaldiko film onenak, eta udaletxean horrek jendea Urnietara erakartzeko itxaropena dute.

Lau film ikusi ahal izango dira ilunabar horretan Saroben. 'Mama', epaimahaiaren saria jaso zuen filma. Eskalada egiten duen ama baten esperientzia du ardatz, Kinga Ociepka-Grzegulska emakume poloniarrena, hain zuzen ere. 'The Frozen Road', bizikletan eta negu betean Kanadako Artikoa zeharkatzen duen gizasemearen abentura (Ben Page). Brad Gobright da 'Safety Third' pelikulako protagonista, librean eskalatzeko munduko eskalatzailer onenetakoa. Laugarren pelikula 'Song for the nomad' izanen da, eta Kirgizistango Tienshan mendietako nomaden bizitza eta mendi eskia uztartzeko dituzte.

Pelikula horien guztien trailerak dagoeneko ikusgai daude mendifilmfestival.com webgunean. Mendiaz pantaila handian gozatzeko aukera berria, beraz.

LUZ ARDIDENERA MARTXOAREN 10EAN EGINGO DUTEN IRTEERA EGUN BAKARREKOA IZANGO

MENDIFILM FESTIBALAK URNIETAN EGINEN DU GELTOKIA, BIGARREN URTEZ JARRAIAN



Jubenil mailako Euskalduna-Urnieta partida

FUTBOLA Larunbat arratsaldean Andoingo eta Urnietako taldeen arteko derbia jokatu zen, nagusiek euren arteko jokatu eta astebetera. 3-3ko berdinketarekin amaitu zen. Igoera fasean izanik, emaitza ez da txarra Euskaldunak lehen postuari eusten diolako, eta Urnietak hirugarrenari. Lehen itzulia asteburu honetan amaituko da.

KARTELDEGIA: SASKIBALOIA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Ganbara-Larramendi **41-46**

SAILKAPENA

1	Zarauz	34 puntu
2	STL Azkune	33 puntu
3	AIB	31 puntu
8	Alde Zaharra B	26 puntu
9	Ganbara	25 puntu
10	Larramendi	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Bosteko B-Ganbara / Lar, 3

KADETE MAILA

SAILKAPENA

1	Ganbara	26 puntu
2	Goierrri	26 puntu
3	Aloña Mendi	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Guadalupekoa / Lar, 3

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Orio-Euskalduna **2-6**

SAILKAPENA

1	Hirukide	37 puntu
2	Tolargi	36 puntu
4	Idiazabal	32 puntu
5	Euskalduna	31 puntu
6	Oiartzun	29 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

22:30 Anoeta-Euskalduna / Ostirala, 2

ANDOINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

Academia London-Olajauna	2-3
Pausoka-Irunberri	5-6
Gorostidi-C. Extremeño	3-4
Akerbeltz-Txalaka	2-0
Academia GF-Powerade	3-2
Ekhia-Ekaintz	10-3
Dad Kutxa-Keler	3-1

Denboraldiko lehen lasterketa, etxean bertan

TXIRRINDULARITZA Alebin eta infantil mailakoentzat Kaleberrian abiatuko da denboraldia, Zumea kaleraino luzatuko den ibilbide itxian. Kadete mailakoek aurrekoan egin zuten debuta, Donostian. Larunbat honetan Beasainen dira

Erredakzioa ANDOAIN

Kadete mailakoek finala jokatu aurretik, pedalei eragiteko bi txanda izan zituzten. Atxaga eta Alkain iritsi ziren finalera.

KADETEAK, SAILKAPENA

1. Asier Pozo (Bazpi).
2. Iñaki Errazquin (Donosti Berri).
3. Aimar Erostarbe (Ulma).
16. Iker Atxaga (Andoaingo).
25. Peru Alkain (Andoaingo).

LASTERKETAK LARUNBATEAN

16:30. Alebinak, infantilak. Andoain.
11:00. Kadeteak. Beasain.



Kadete mailakoek Ibaetan, joan zen asteburuan parte hartu zuten lasterketan. ANDOAINGO

Lankidetzaren hitzarmena

TRIATLOIA Txintxarri tokiko hedabideak argitara eman duenez, Lasarte-Oriako Trinko taldeak eta eskualdeko Buruntzaldea IKT taldeek akordio sinatu dute, triatloian lehen urratsak egiteko interesa duten igerilariak taldean sarbidea izan dezaten. Iñigo Ibarburu igerilariak, esaterako, jauzia egitea erabaki du. Sprint probatan parte hartuko du, aurten.



FOTOTRI

Finalera Iribar eta Garagorri

GOMAZKO PALETA Udaberri txapelketa amaitzear da. Unai Arozena eta Xabier Perez de Arenaza finaleraino kanpo geratu ziren, Kukuren aurka galdu eta gero (25-11). Poza, aldiz, Ekain Iribar eta Xabier Garagorri bikoteak ekarri zuen. Lidergotzan ziren Altxatarra taldea garaitu (40-32) eta finalera sailkatzeko txartela eskuratu dute.



UKE

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
EAS 08-Euskalduna	0-2
Urnieta-Mundarro	2-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30	Euskalduna-Billabona / Lar, 3
18:00	Allerru-Urnieta / Lar, 3

ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

EMAITZA	
Sporting-Euskalduna	1-2

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA	
Bergara-Urnieta	1-2

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Urnieta-Beti Gazte / Lar, 3
-------	-----------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZA	
Euskalduna-Danena	6-0

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Axular-Euskalduna / Iq, 4
-------	---------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZA	
Euskalduna A-Urnieta A	3-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Lengokoak B-Euskald. A / Lar, 3
15:30	Urnieta A-Zestoa / Lar, 3

KOPA

EMAITZAK	
Idiazabal-Urnieta B	7-1
Euskalduna B-Billabona	1-3

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Urnieta B-Ordizia / Lar, 3
-------	----------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA	
Euskalduna-Luberri	1-0

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30	Real Union-Euskalduna / Lar, 3
-------	--------------------------------

EMAITZAK, KOPA

Urnieta-Vasconia B	2-3
Billabona-Euskalduna	2-0

ASTEBURUKO PARTIDAK 4-7MUL.

11:00	Sporting B-Urnieta / Lar, 3
13:45	Euskalduna-Lazkao / Lar, 3

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Urnieta-Zestoa	2-3

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30	Zumaiako-Urnieta / Lar, 3
-------	---------------------------

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Aritzatalde-Leizaran	30-21
Urola-Urnieta	30-30

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00	Leizaran-Pulpo / Lar, 3
18:30	Urnieta-Soraluze / Lar, 3

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK	
Ordizia-Urnieta	21-27
Leizaran-Eibar	27-21

SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	32 puntu
2	Egia Kopidin	24 puntu
3	Urnieta	20 puntu
6	Leizaran	15 puntu

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK	
Urnieta-Ordizia	33-25
Leizaran-Irun	29-30

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Leizaran-Hettich ZKE / Lar, 3
19:15	Irun-Urnieta / Lar, 3

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK	
Urnieta-Egia	21-30
Ordizia-Leizaran	16-20

ASTEBURUKO PARTIDAK 1-2 MU.

11:45	Eibar-Urnieta / Iq, 4
12:00	Leizaran-Aiala ZKE / Iq, 4

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK	
Urnieta-Amenabar B	27-23
Amenabar C-Leizaran	26-38

ASTEBURUKO PARTIDAK 1-2 MU.

11:30	Urnieta-Urola EK A / Iq, 4
13:00	Leizaran-Ereitza / Lar, 3

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Leizaran Horia-Bergara	21-12

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30	Irun B-Leizaran Horia / Lar, 3
-------	--------------------------------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK	
Irun A-Leizaran Urdina	16-15
Urnieta-Usurbil A	23-16

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran Urdina-Urnieta / Lar, 3
-------	----------------------------------

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Arretarako bulegoa
Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.
Bastero, 17:00-19:30.

ANDOAIN Solasaldia
'Pausoz Pauso 2018' ekimenaren aurkezpena, omenduekin solasaldia.
Bastero, 18:30.

ANDOAIN Pintxo-potea
Pintxo-Potea feminista, berdintasunaren alde. Herrian zehar, trikitilariekin batera.
Bastero, 20:00.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Arretarako bulegoa
Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.
Bastero, 10:30-13:00.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Jarduera artistikoa
"Algodonerako emakumeak. Kaleko ekintza fotografikoa", kaleko ekintza artistikoa Sylvia Ayerraren eskutik.
Urigain, 11:00.

ANDOAIN Ospakizuna
Andaluziaren eguna ospatuko du Trianak. Eguerdian salbea, kantu saioa, ohorezko topa, txokolate jatea eta haur marrazkigintza saioa. Arratsaldean, zumba maratoia eta DJ Tristan.
Nafarroa plaza, egun osoan.

IGANDEA 4

ANDOAIN Bazkaria
Andaluziaren egunaren ospakizunekin jarraituko dute Trianako kideek. Bazkideen arteko bazkaria.
Triana elkarte, 14:30.

ASTELEHENA 5

ANDOAIN Elkarretaratzea
Pentsiodunen asteleheneroko bilkura, pentsio duinen alde.
Goikoplaza, 12:00.

**ANDOAIN Zuberoako Maskaradak ikusteko irteera**

Urki dantza taldeak tradizio handiko Zuberoako Maskaradak ezagutzeko irteera antolatu du. Egun osoko irteera izango da, eta joan-etorria autobusez egingo dute. Informazioa: 627 441 603.

Martxoak 4, igandea. Haurrak 6 euro, helduak 12 euro.

ASTEARTEA 6

ANDOAIN Mahai-ingurua
"Andoaingo emakumeen aztarnak. Gure ekarpena herriko historiari". Ikus-entzunezkoa eta mahai-ingurua, Jone Larrañagak zuzenduta.
Bastero, 18:00.

OSTEGUNA 8

ESKUALDEA Greba deialdia
Martxoaren 8an hainbat sindikatuk eta herri mugimenduk greba deitu dute, emakumeen eskubideen alde.
11:00-15:00 / 18:00-22:00.

ANDOAIN Erakusketa
"Andoaingo emakumeak Euskalduna Futbol Elkartean" erakusketa. Martxoaren 8tik 11ra.
Juanita Alkain plaza, egun osoan.

OSTIRALA 9

ANDOAIN Erakusketa
"Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak", Itsaso Mendiluzeren eskutik. Martxoak 9- 14.
Bastero, 19:00.

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa tailer irekia.
Gazte Lokala, 17:15.

Giltzadun Etxea, Tanntakaren antzezlana euskaraz.
Bastero, 21:30.

LARUNBATA 10

ANDOAIN Martxa-kalejira
"Pausoz Pauso" kalejira, aurtengo omenduen parte hartzearekin. Basteron hasi eta Goikoplazan amaituko da.
Bastero plaza, 12:00.

ANDOAIN Emakumeen bazkaria
Emakumeen bazkaria, Zuen elkartearen eskutik.
Oianume, 14:00.

ANDOAIN Tailerra
Kamixetak egiteko tailerra.
Gazte Lokala, 17:30.

URNIETA Olerkigintza
"Hiru emakume" olerkia, hiru ahotssetara.
Gonbidapena behar da.
Sarobe, 19:00.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO**

Errementari
Larunbata, 3:
19:30; 22:00.
Igandea, 4:
19:30.
Astelehena, 5:
19:30; 22:00.

Maya erlea 2


Larunbata, 3:
17:00.
Igandea, 4: 17:00.
Los archivos del Pentágono
Larunbata, 10:
19:30; 22:00.
Igandea, 11:
19:30.

URNIETA**SAROBE**

Robby & Toby
Haur emanaldia.
Igandea, 4: 17:00.
Figuras ocultas
Ostirala 9,
igandea 11:
19:00.



SINOPSIAK

**Errementari**

Zuz.: Paul Urkijo. **Herr.:** Euskal Herria eta Frantzia (2018).
Iraupena: 94 minutu. **Hizkuntza:** Euskara.

Patxi errementariaren istorioa

Zortzi urte pasatu dira 1833ko lehenengo Gerra Karlistatik. Arabako herrixka batean, Alfredo izeneko Diputazioko komisario bat gertakari bat ikertzen ari da, eta arrastoez

basoaren sakonean dagoen errementaria beldurgarri batera daramate. Bertan, errementari arriskutsu eta bakarti bat bizi da: Patxi.

Robby & Toby y el viaje fantástico

Zuz.: Wolfgang Groos. **Herr.:** Alemania, Belgika (2017). **Aktoreak:** Arsseni Bultmann, Alexandra Maria Lara... **Iraupena:** 106 minutu.

Abenturaz beteriko bidaiak

Robby eta Toby lagunak dira. Robby robota da, eta bidaiak luzea egiteko asmotan,

ibilgailu berezia sortzen dute airea, ura eta lurra zeharka dezakeena: Aeroguatutú.

Greba feminista Andoainean

Martxoaren 8ko greba feministari begira, Andoainean ekitaldi sorta iragarri du sortu berria den Andoaingo Asanblada Feministak. Hasteko eta behin, Euskal Herri osoko mobilizazioekin bat eginez, lan-uzteak babestuko dituzte. Bi aukera daude: 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.

Hitzorduak Andoainean, "M8an, Andoainean ere emakumeok* planto!" izenburupean:
• 11:30 Kazerolada Goikoplazan. Jarraian kalejira Zumea plazaraino.
• 14:30 Bazkaria Gaztetxean. Eta, ondoren, jokoak, dokumentala eta karaokea.
• 18:00 Mobilizazioa Zumea plazan.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Urko Perez Perez de Arenaza
Otsailaren 27an 5 urte bete zenituen. Egun ona pasa zenuelakoan. Muxu handia etxekoan partetik, bereziki Uxueren partez!



URNIETA
Costanza Mateos
Zorionak polit hori! Ondo pasa zure zortzigarren urtebetetzean. Muxu pilo osaba-izeben, lehengusuen eta amonaren partetik.



ANDOAIN
Alai
Martxoaren 8an, gure etxeko politenak 6 urte beteko ditu. Zure ondoan egongo gara egun zoragarri hori ospatzeko. Askok maite zaitugu maitia. Etxekoak.



ANDOAIN
Irati Larrea Nuñez
Martxoaren 13an, gure Iratik 9 urte beteko ditu. Poz-pozik ospatu eguna zuk maite dituzun guztiekin. Gure partez muxu handi bat, maitea. Amona Rosarito.

AZOKA

Sastrakak kentzeko makina salgai. Zuhaiak ebakitzeko makina salgai. Oso gutxi erabilia, oraindik zorrotz eta ondo aprobetatzeko modukoak. 943 590 318.
Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.
20 urteko ikasle euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest.** 634 441 353.
AIURRI, MERKATU TXIKIA: diseinua@aiurri.eus

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA
Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN
Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 3 eta igandea 4
DIAZ FERNANDEZ: Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA
Larunbata 3 eta igandea 4
AGUADO: Nagusia, 21 (Eroski).
943 550 327. Astigarraga.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

MAFAR HEGALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA

ZUBI BAT
SUKALDERA

MAR
TXO
AREN

6TIK
20RA

ESKATU OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
ETA 12 ONTZIKO KONTSERBA-LOTE
KONBENTZIONAL EDOTA EKOLOGIKOAK
JATORRIZKO PREZIOAN ETA EUSKARAZ
HERRIZ HERRI EDO ERRIGORA.EUS GUNEAN

OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA (5 LITROKO BIDOIAK) APERILEAN JASO ETA ORDAINDU

KONTSERBA-LOTEAK (PRODUKTUKO 12 ONTZI) EKAITHEAN JASO ETA ORDAINDU

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.


ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



Amaia Romerori esker ona



Amaia Romero. DEIADAR

Piano jaialdiko prestaketa egunak intentoak izaten dira beti, eta, aurtengoa, bereziki. Operacion Triunfoko irabazlea, Amaia Romero piano jaialditik pasa ote zen jakinarazi ziguten. OT-ko kantariak piano jaialdian hiru urtez parte hartu zuenez, piano jotzaile gazteei mezu bat grabatzeko proposamena egin nahi genion. Jaialdiko epaile baten irakaslea izandakoa bere izeba zela jakinda, hari deitu genion. Amaiaren anaiak segituan baiezkua eman zigun.

Larunbat gauean, iganderako lanak aurreraten ari ginela, jaso genuen bideoa. Bertan, piano jotzaile gazteei pianoa ikasten jarraitu eta momentu txarrak izan arren, aurrera egin zezatela animatzen zien.

Sare sozialen bitartez, jaialdi amaierako kontzertuan sorpresa izango genuela iragarri genuen orduan. Bideoa editatzen hasi ginen, dena prest izateko.

Iritsi zen igande arratsaldea, iritsi zen unea. Amaiaren jarraitzaileek segituan ezagutu zuten. Beste batzuk, bideoa ikusi ostean. Politena, kantariak piano jaialdiarekin izan duen detailea izan da. Bere hitzak garrantzitsuak dira gazteentzat, eredutzat baitute. Amaiari bere ametsa betetzea opa diogu. Mila esker eta zorte on, Amaia!

AZKENA



Tere Otamendi, Miren Erkizia, Ana Sanz, Mikel Telletxea eta Jexux Ansa bildutako elikagaien ondoan. HURRIA-SAHARA

Hamar tona elikagai, Saharara bidean

Hurria-Sahara elkarteak 10.448 kilo elikagai bildu ditu, Tindufeko kanpamenduetara bidaltzeko. Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie elikagaiak eman dituzten andoaindar guztiei, Udalari eta Andoaingo merkatalgune handi zein txikiri

Erredakzioa ANDOAIN

Bi hilabete iraun duen lan saioan Hurria-Sahara elkarteak 10.448 kilo elikagai bildu ditu Saharako kanpamenduetara eramateko. Giza laguntza hau Elikatu Esperantza kanpainaren baitan kokatzen da eta Tindufen bizi diren familia sahararren pobrezia egoera leuntzeko egin ohi da. Elikagaiez gain, haur eta

helduentzako pixa-oihalak jaso dira, baita eskolarako materiala eta botikak ere.

Hurria-Sahara elkarteak eskerrak eman nahi dizkie elikagaiak eman dituzten andoaindar guztiei, Udalari eskainitako laguntzagatik eta Andoaingo denda handi zein txikiri izan duten jarrera eredugarriagatik. "Hurria-Saharak berriro zorion-

du nahi ditu andoaindarrak erakutsi duten eskuzabaltasun eta elkartasunagatik. Urtero laguntza eskatzen dugun bakoitzean jendea erruz hurbiltzen zaigu saltokietara. Eta aurtentzen ere arrakastatsua izan da elikagai bilketa". Sei kamioiz osatutako karabana larunbat honetan irtengo da Bilbotik, berrehun tona elikagairekin.

Gogorarazi nahi dute familia sahararren egoera penagarria dela, basamortuan botata daudela Marokoren politikaren errepresioaren eta nazioarteko erakundeen utzikeriaren erruz. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 42 urte pasatu badira ere, 1976ko otsailaren 27an hain zuzen, Saharara libre izateko oraindik irteera politikorik ez dela gauzatu salatu dute.



Aurtengo afitxa. HURRIA-SAHARA

Bertso saioa hilaren 25ean, Basteron

Mendiluze herrikidearekin batera, puntako bertsolariak kantari arituko dira: Unai Agirre, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran eta Unai Muñoa. Sarrerak salgai: Delgado, Ernaizta, Stop eta Urrats.

